



Bat egin aldaketarekin

100 proposamen aldaketarako.

Datorren azaroaren 20ko hauteskundeetan parte hartzeko Alderdi Popularrak aurkezten duen hauteskunde-programaren **laburpena** da dokumentu hau.

www.pp.es

www.rajoy.es



Gizarte gehiago, gobernu hobe

Dokumentu honen bidez, Alderdi Popularrak Espainiako gizartearekin duen konpromisoaren proposamen nagusi batzuk aurkezten dira. Jakin badakigu ez dela erraza izango, ez dagoela lasterbiderik, baina prest gaude eta asmo handiak, kemena eta lan egiteko gaitasuna ditugu une honetatik aurrera guztiok behar dugun Espainiarantz aurrera egiteko.

Alderdi Popularraren erreforma-agenda Espainiak behar duen aldaketarako tresna da, gure hauteskunderen mamia; gutxi gorabehera funtsezko sei ardatzetan egituratzen da.

- Hazkuntza ekonomikoa eta enplegua sortzea. Ekonomia lehiakorrago baten oinarriak ezarri behar ditugu konfiantza berreskuratu eta Espainia inbertitzeko eta enplegua sortzeko leku onena berriz izateko.
- Hezkuntza hobetzea. Hori da aukerak dituen gizarte bat izateko gakoa. Ezin ditugu belaunaldi espainiarrak galdutzat hartu.
- Ongizatearen gizartea eta gizarte-babesa bermatzea, etorkizuneko belaunaldiei prestazioak bermatzen dizkieten aldaketen bidez. Gure lehenasuna da guztiek osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak izatea.
- Sektore publikoa aldatzea eta modernizatzea luxurik gabe, gardentasunaren eta eraginkortasunaren printzipioak oinarri.
- Instituzioak sendotzea eta politika birsortzea. Instituzio fidagarriak, aurreikus daitezkeenak izan eta legea eta segurtasun juridikoa errespetatzera itzuli behar dugu.
- Gure herrialdea kanpoan ikusaraztea, berriro fidagarriak eta sinesgarriak izatea munduaren aurrean. Globalizazioaren aukerak aprobetxatu behar ditugu gure gizartearen onerako.

Alderdi Popularrak espainiarrei eskaintzen dien programa hau serioa eta sinesgarria da, errealista eta asmo handikoa, berriz ere hazi eta Espainia herrialde aberats eta indartsua izatera itzultzeko. Programa honi esker, krisiari aurre egingo diogu, gobernu herritarrei irekiko diegu eta aldaketa iraunkorrak egingo ditugu.

Gizarte gehiago eta gobernu hobe lortzea izan behar da gure asmoa. Hori baita Espainiak behar duena.

Espainiak etorkizuna dauka. Espainiarrek beren eskuetan dute irtenbidea. Eta horregatik, agintari erreformista eskatzen dugu, eta ekonomia berreskuratzeko, instituzioak birsortzeko eta nazioarteko prestigioa izateko proiektu integratzaile handi hau luzatzen dizuegu.



Egonkortasuna eta aldaketak enplegurako

Alderdi Popularrak ilusioz beteriko proiektu bat eskaintzen du; enplegua eta aukera sortzea, ekitatea, gizarte-mugikortasuna eta ongizatearekiko konpromisoa funtsezko elementuak dira guztiok batera, eta arrakasta-bermeekin, Espainiak aberastasunaren bidea berreskura dezan nahitaez behar dituen aldaketa ekonomikoei aurre egiteko.

Ekonomia espainiarrak ziurtasunezko etorkizuna behar du. Gure proiektuak konfiantza du gizarte espainiarraren aukeretan, beti erakutsi baitu alderik onena elkarrekin lan handiak egiteko dei egin zaionean.

Gizartea izango da protagonista Espainiaren potentziala askatzerakoan. Enplegua sortzea funtsezkoa izango da herritar guztiak euren etorkizunaren eta askatasun-gune berrien jabe bihurtu ahal izateko.

Alderdi Popularrak eskaintzen duen politika ekonomikoari esker, espainiarrak prest egongo dira ezagutzaren ekonomia globalean arrakastaz lehiatzeko.

Konpromisoa hartzen dugu egonkortasun-konpromisoak gure gain guztiz hartzeko eta eredu gisa horiek betetzeko, moneta bakarreko beste kide guztiekin batera. Modu horretan soilik berreskuratu ahal izango du Espainiak kreditu-kalitate handiena, eta Europako beste nazio aberats eta sinesgarriekin alderatu daitezkeen finantzazio-baldintza egokiak lortuko dituzte ekintzaile espainiarrek. Espainia eta euroa plataforma onena izango dira berriz ere konfiantzaz eta erakunde-esparru seguru eta fidagarri baten babesarekin munduan murgiltzen diren enpresa eta langileentzat.

Egonkortasuna eta aldaketak izango dira eredu ekonomiko berriaren oinarriak. Eredu horri esker, enpresen eta sektoreen arteko ekoizpen-baliabideak modu eraginkorrean esleituko dira, eta ekintzaileek eta langileek aukera berriak errazago bilatuko dituzte.

Ongizatearekin konpromisoa hartzen duen proiektu politiko berriaren lehentasuna Espainiako ekonomiak hazteko duen gaitasuna berreskuratzea izango da, herrialdeko egitura ekonomiak aldatuko dituen erreforma-agenda oso baten bidez. Gehiago egiten badugu gora, eta desorekarik gabe, etorkizuneko aukerak hobetuko ditugu, konfiantza sortuko dugu eta bertutez betetako hazkunde- eta enplegu-ziklo bat sustatuko da. Hori behar baitute espainiarrek eta, bereziki, egun lan-merkatutik baztertuak izan diren belaunaldi gazteek.



1.1. Espainia, lehiakorra euroan

- 01.** Egiturretan aldaketak egiteko plan oso eta koherente bat aurkeztuko dugu aurrekontua egonkor mantentzeko, finantza-sektorea onbideratzeko, ekonomia liberalizatzeko, lan-mundua aldatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko. Argitasun eta ziurtasunez beteriko esparru bat finkatuko dugu, Espainiak euro-zonan arrakasta izateko helburu, baliabide eta ekintzekin.
- 02.** Legealdiaren lehenengo urtean zehar administrazio osorako gastua oro har berrikusiko da; modu horretan, zuhurtasunaren politika orokorrean lehentasunak ezarri eta gainjartzeak ekidingo dira.
- 03.** Lege- eta erakunde-esparru espezifiko bat ezarriko dugu merkatuaren batasuna bermatzeko. Merkatuak, berriz, printzipio gidariak, aplikazio-eremuak eta lurraldeen artean gatazkak konpontzeko mekanismoak ezarriko ditu eta, beraz, lehiakortasuna sustatu eta ondare eta zerbitzu guztiak eskuratzeko berdintasuna bermatuko da Espainia osoan.
- 04.** Espainia markatzat duen plan orokor bat egingo dugu, esportatzaileen eta inbertitzaileen eskuetan jarri ahal izateko eremu guztietan bikaintasuna duen herrialde baten irudia.

1.2. Kontu publikoak, antolatuta

- 05.** Aurrekontuen egonkortasunerako lege organiko berri bat sustatuko dugu, konstituzioaren aldaketa berria aurrera eraman ahal izateko. Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluak dituen parte-hartze mekanismoak legean ezarriko ditugu. Administrazioen arteko defizita eta zorraren mugak banatzeko prozesuak zehaztuko ditugu, baita aparteko kasuak, desbideratzeak zuzentzeko modua eta epea eta horiek betetzeko egongo diren erantzukizunak ere.
- 06.** Plan zuhur bat egingo dugu administrazio guztiak barneratu, alferrikako gastuak eta bikoiztasunak desagerrarazi eta eraginkortasuna saritzen hasiko dena. Organismo, erakunde publiko eta entitate instrumentalek administrazioak egin ditzakeen funtzioak betetzen badituzte (euren lanari kalterik egin gabe), lehenengoak arrazionalizatu eta, aldi baterako, indargabetuko ditugu. Politika integral bat sustatuko dugu administrazio guztiek dituzten higiezinaren ondarea eta alokairuak kudeatzeko.
- 07.** Aurrekontu-egonkortasunerako legeak betetzen ez dituzten kudeatzaile publikoei erantzukizunak indartu eta zigorrak ezarriko dizkiegu.

1.3. Susperraldia finantzatzeko kreditua

- 08.** Finantza-sistema onbideratu eta berregituratuko dugu. Ondarea galdu duten finantza-erakundeei hura aktiboki kudeatzen lagunduko diegu, hala behar izanez gero. Gardentasun, lehia eta gainbegiratze independentearen irizpideekin merkaturatuko da aipatutako ondarea.



- 09.** Enpresak finantzatzeko bankukoak ez diren mekanismoak gara daitezen sustatuko dugu. Kapital-merkatuen garapena bultzatuko dugu horien azpiegiturak modernizatuz eta eraginkorragoak eginez eta epe luzeko eta aurreikus daitekeen aurrezkoa sustatuz. Enpresa kapitaletan parte hartzeko mekanismoak (business angels, hazi-kapitala edo private equity) gara daitezen bultzatuko dugu.

1.4. Enplegu ziurra eta malgua guztientzat

- 10.** Lan-merkatuaren osoko aldaketa abiaraziko dugu, bost milioi langabetu dituen herrialde honek bizi duen drama sozialari erantzun bat emateko. Osoko aldaketa horri esker, kontratazioa, negoziazio kolektiboa, lan-harremanen sistema, lanbidera orientatutako prestakuntza eta bitartekotza koherentea eta koordinatua izango da.
- 11.** Lan-kontratuen tipologia sinplifikatuko dugu behin-behinekotasuna murriztu eta egonkortasun-, malgutasun- eta segurtasun-aukerak emateko langile eta enpresa guztiei.
- 12.** Negoziazio kolektiboaren egitura eta edukiak indartuko ditugu; modu horretan, gai bakoitza dagokion lurralde eta sektorean negoziatu eta, hala, lehiakortasun ekonomikoa, enpleguaren iraunkortasuna eta merkatuaren batasuna bermatuko da. Ordainsariekin eta lan-baldintzekin lotutako gaitetan, lehentasuna izango dute enpresariak eta langileek hitzartutako enpresa-hitzarmen edo akordioek.

1.5. Ekintzaile gehiago enplegua sortzeko

- 13.** Europako araudiari jarraiki, BEZaren erregimena aldatuko dugu, autonomoek eta ETEek dagozkien fakturak behar bezala kobratu arte zerga ordaindu beharrik ez izateko. Mekanismo arin eta eraginkor bat osatuko dugu ETEen eta autonomoen zerga-zorrak aitortu eta administrazioek kobratzeke dituzten zenbatekoekin konpentsatzeko.
- 14.** Ekintzaileak babesteko lege berri bat sustatuko dugu enpresa-ekimena berrien eta ETE eta autonomoen jardueren alde.
- 15.** Babes fiskal bat onartuko dugu, 3.000 eurokoa, sortu berri den enpresa batek bazkide-egoera ez duen langile bat lehenengo aldiz kontratatzen duenerako. Gizarte-kotizazioak sarituko dizkiegu bazkide ez den lehenengo langile bat kontratatzen duten enpresari autonomoei.

1.6. Aldaketa fiskala hazkunderako eta ekitaterako

- 16.** Errentaren gaineko zorra modernizatuko dugu aurrezkoa, inbertsioa eta enpleguaren mesederako. Epe luzeko aurrezkoa fiskalki sustatuko dugu;



horretarako, PFEZan kenkari berri bat sortuko dugu urteko aurrezki-igoeraren arabera, eta ohiko etxebizitzaren esleipena barne hartuko du. Pentsio-planetako prestazioen zerga-ordainketa hobetuko dugu. Familia-gutxiengoak igoko ditugu PFEZan, zergadunen egoeretara hobeto egokitzeko asmoz, bereziki familia ugaria bada.

- 17.** Sozietateen zerga zabaldu, eta tamaina txikiko enpresei ehuneko 20ko zerga-tasa aplikatuko zaie; ehuneko 25eko tasa aplikatzera ere iritsiko gara. Kenkarien sistema sinplifikatuko dugu.

1.7. Kalitatezko energia ekonomia sustatzeko

- 18.** Horniketa, lehiakortasuna, energia-eraginkortasuna eta ingurumenaren iraunkortasuna bermatzen duen energia-politika bat egingo dugu. Mix energetiko orekatua izango dugu, dauden energia-iturri eta edukiera guztiak kontuan hartzen dituen.
- 19.** Eskaintzaren borondatezko kudeaketa egiteko ahalbidetzen duten elektrizitate-sare adimendunak eta etxeko gailuen sarea garatu eta zabal dadin sustatuko dugu, kontsumoei buruzko informazioa denbora errealean jakinaraziz.

1.8. Berrikuntza enplegurako

- 20.** Enpresetako I+Gean inbertsioa sustatzen duten pizgarri fiskalen egitura eguneratuko dugu; lehentasuna emango zaie sortu berri diren enpresei, ETE berritzaileei eta lehentasuna duten sektoreei, hala nola, osasunari, energiari eta garraioari, Europan egin diren praktika onenak kontuan hartuta. Mezenasgoa sustatuko dugu.
- 21.** Lege-esparrua indartuko dugu jabetza intelektual eta industrialak babesteko.
- 22.** Enpresen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, erabakimenez lagunduko diegu teknologia-zentroei, teknologia-berrikuntzan laguntzen duten zentroei eta zientzia- eta teknologia-parkeei; horretarako, teknologia-ezagutza sortzea sustatu, I+G+b jarduerak gauzatu eta horiek aplikatuko dira. I+G estrategikora orientatutako berariazko programak, zentroyen arteko lankidetzak eta programa europarretan parte-hartzea berrezarriko ditugu.

1.9. Teknologia berriak modernizaziorako

- 23.** Kanon digitala kendu eta jabetza intelektualak kudeatzeko eta saritzeko eredu berri zuzenago eta bidezkoago batengatik ordezkatzeko dugu, lanen erabilera eraginkorra oinarri.
- 24.** Belaunaldi berriko sareak, finkoak nahiz mugikorak, zabaldu eta horietan oinarritzen diren zerbitzu berriak gara daitezzen sustatuko dugu. Azpiegitura sare horiek hedatzerakoan, arau- eta administrazio-mugak ezabatzen saiatuko gara.



1.10. Behar ditugun azpiegiturak

- 25.** Konexio eta modu-trukerako plataforma berriak egingo ditugu, eta interes orokorreko portuak artekari multimodalekin konektatzen hasiko gara, bereziki, itsasoko autopista diren portuak merkantzien tren-artekariekin. Helburua da portu espainiarrak nazioartean ezagutzen diren benetako zentro logistiko intermodalak izatea. Abiadura handiko sare moderno, iraunkor eta eraginkorra sustatuko dugu, eta aireportuen sarearekin konexioak erraztuko ditugu.
- 26.** Administrazio guztiek puntu beltzak eta identifikatzen diren istripu kontzentrazio guneak derrigor ezabaraztea arautuko dugu. Gure bide-sarean oinezkoen, txirrindularien eta motoristen segurtasun aktiboa nahiz pasiboa indartuko dugu; horretarako, seinaleztapena hobetu eta babes-langa egokiak ezarriko ditugu.

1.11. Etxebizitzaren politika hazkunderako eta kohesiorako

- 27.** Aldi baterako, supermurriztutako BEZa aplikatuko da ohiko etxebizitzaren salerosketan. Etxebizitza erosteagatikoen kenkaria PFEZan eguneratuko dugu.
- 28.** Lehiaketa-legea aldatuko dugu, zergadunen liberazio-mekanismoak barne hartzeko pertsona fisikoen kaudimen-gabeziaren prozesuetan (eta beharrezko bermeekin, gehiegikeria-jarrerarik ez egoteko) bahitu daitekeen ondaretik hartu ondoren.
- 29.** Alokairuzko etxebizitzaren planek etxebizitza bat lortzeko zailtasun gehien duten horien alde egin dezaten bultzatuko dugu. Horretarako, etxebizitzarako *per capita* errenta bezalako irizpide objektiboak hartuko dira kontuan. Erostea aukera bat ematen duten alokairu-programak sustatuko ditugu, alokairurako diru-laguntzak lortzeko irizpideak betetzen ez direnean.

1.12. Espainia, munduko potentzia turistikoa

- 30.** Osoko turismo-plan bat aurkeztuko dugu, sektore hau lehentasunez jorratzeko, fiskalitatea hobetzeko eta sektorean eragina duten ministerio guztien arteko politikak eginarazten dituenak. Horretarako, autonomia-erkidegoen lankidetzaren eta sektore pribatuaren parte-hartzea bilatzen saiatuko gara.
- 31.** Espainiak kalitatezko turismorako duen irudia indartuko dugu. Horretarako, Espainiak atzerrian duen turismo-bulegoen sarea modernizatu eta hobetuko dugu. Espainian kultura- eta kirol-jardunaldi handiak antolatzearen aldeko apustua egingo dugu. Espainia marka sustatuko dugu kalitatezko turismo-eskaintzaren erreferente gisa.



1.13. Nekazaritzako elikagaien sektore lehiakorra eta antolatzailea

- 32.** Gazteak nekazaritza-jardueran sar daitezen sustatuko dugu landa-eremuaren bazterketa eta landa-populazioaren zahartzea geldiarazteko, baita belaunaldien erreleboa posible izateko ere. Emakumeek ustiapenak kudeatzen modu eraginkorren parte har dezaten sustatuko dugu.
- 33.** Nekazaritza-politika bateratu berria aplikatzeko eta defendatzeko estrategia nazional bat egingo dugu. Espainiako nekazaritza-elikagaien sektorea nazioartekotu dadin sustatuko dugu; horretarako, industria indartu eta gure gastronomia Europara eta nazioartera zabaltzen ahaleginduko gara.

1.14. Arrantza iraunkorra eta etorkizuna duena

- 34.** Araudia eguneratuko dugu Arrantza-politika bateratu berrira eta kudeaketa-eta antolamendu-irizpideetara egokitzeko; modu horretan ontzidien erregularizazioa modu eraginkor, zorrotz eta iraunkorren burutuko da. Antolamendu juridikoan, legez kanpoko arrantza desagerrarazteko neurriak barne hartuko ditugu.
- 35.** Itsaslapurretaren aurkako borrokan nazioarteko lankidetzak sustatuko dugu, baliabideak eta ekintzak hobeto koordinatuz.

1.15. Industria, lehiakortasun faktore gisa

- 36.** Egiturretan behar diren aldaketak egingo ditugu, enpresa espainiarrek lehiakideek baino kapital- eta ekoizpen-kostu garestiagoak ez ordaintzeko.
- 37.** Espainiako industriaren garapena sustatuko dugu berrikuntza, enpresa-hazkunderako prozesuak eta esportazio-intentsitatea areagotzeko eta araudi-esparrua sinplifikatzeko jardueren bidez.



Hezkuntza, aukerez beteriko bidea

Programa honetan neurri hauek aurkezten ditugu: eskakizun akademiko handiagoa, ahalegin eta merituen aintzatespena, ingelesa derrigorrezko hezkuntzaren amaieran menderatzea eta zentroen autonomia kontuak ematearekin konbinatuta daudela bermatzea. Kalitatezko hezkuntza-sistema batek soilik ahalbidetu dezake aukera-berdintasun erreala, ikasle bakoitzak ahalik eta potentzial gehiena lor dezan. Aukera-berdintasunak, gainera, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleentzako neurri eta programak garatzea dakar. Gure xedea ikasle bat bera ere atzean ez geratzea da.

Kalitatezko hezkuntza-sistema bat bermatzeko elementu nagusia irakasleak dira; gaur egungo ereduarekin, ordea, haien prestigioa eta autoritatea ahuldu egin da. Gainera, errealitate berrietara egokitu nahi dugunez, irakasleak hautatzea eta horien prestakuntza-prozesua hobetu behar da, kidego nazionalaren izaera azpimarratzen duten irakasle-ikasketak sortuz.

Familiekin eta horien erabakietan konfiantza duen hezkuntza-sistema bat behar dugu. Kalitatezko hezkuntza publiko bat izateko konpromisoa hartu dugu, baita familiek lehenesten dituzten ideia eta eredu pedagogikoa errespetatzen duen ekimen sozialeko hezkuntza plural bat eskaintzeko ere.



Bat egin aldaketarekin

Lanbide-heziketa baliabide baliotsu bihurtu behar da gazteek enplegua lortu ahal izateko. Enpresarekin estu lotzen den lanbide-heziketa nahi dugu, ikastetxeko prestakuntza enpresa-barruko lanarekin konbinatzen duena, lan-merkatuko eskaerari erantzuna ematen diona.

Kalitatezko bigarren hezkuntzak ere unibertsitateen kalitatea sustatzen du. Izan ere, gure unibertsitateetan aspektu ugari dago oraindik hobetzeke. Eraitzen araberako finantzazio-eredu berriak behar dira, baita kudeaketa eta kontu-emate hobeak bermatzen dituen zuzendaritza ere.

Ikerketa, berrikuntza eta gardentasuna funtsezko elementuak dira ekonomia lehiakorra eta aurreratua izateko. Oinarrizko ikerketan lortu den maila kontuan hartuta, bikaintasun-maila altuagoetara jo behar da. Unibertsitateak benetako ezagutza-lantegiak izan behar dira gizarte espainiarrarentzat. Horretarako, mugikortasuna, nazioartekotzea eta emaitzen ebaluazioa sustatu behar da.



2.1. Kalitatezko hezkuntza guztientzat

- 38.** 16 urtera arteko derrigorrezko doako hezkuntza hobetuko dugu bere egitura aldatuz, hezkuntza goiz uzten duten pertsonak murrizteko eta ikasleen prestakuntza areagotzeko. Bigarren hezkuntza malguago antolatuko da, ikasleen interes, motibazio eta aurrerapenak kontuan hartzen dituen hezkuntza-bideak eskainiz. Batxilergoak 3 ikasturte izango ditu; lehenengoa hastapen-ikasturtea izango da.
- 39.** Irakasle-ikasketak egiteko izaera nazionalako hautaketa- eta prestakuntza-eredu berri bat jarriko dugu abian. Ereduak espediente akademiko onenak erakarri eta meritua eta gaitasuna hautaketa-irizpide gisa izango ditu. Irakasleak beren jarduera egiterakoan, legez autoritate publikoak izan eta euren lanerako pizgarriak egon daitezen sustatuko dugu.
- 40.** *Gaztelera-ingelesa elebitasuna sustatuko dugu hezkuntza-sistema osoan, haur-hezkuntzaren bigarren ziklotik hasita.* Atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntza indartuko dugu. Hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetan, hiru-eletasunean oinarritutako hezkuntza-aukera sustatuko dugu, batxilergoaren amaierara arte.

2.2. Lanbide-hezkuntza enplegurako

- 41.** Izaera dualeko lanbide-hezkuntza modalitate berri bat ezarriko dugu, hezkuntza-prozesuan gazteek euren lehenengo lan-esperientzia izatea ahalbidetzen duena. Asmo handiko beka-soldata programa bat sustatuko dugu.
- 42.** Enplegurako lehenengo politika aktibo gisa berreskuratuko dugu prestakuntza. Langabetuei ematen zaien prestakuntza lan-merkatuaren beharretara hobeto egokituko dugu. Baliabide teknologiko guztiak aprobetxatuko ditugu, urrutiko lanbide-hezkuntzaren eta, bereziki, profesionaltasun-ziurtagirien alde egiteko. Eskaintza pertsona desgaituen beharretara egokituko dugu.
- 43.** Prestakuntza jarraiturako eta langileek laneko bizi guztian zehar berriz kualifikatzeko eskubide indibiduala ezarriko dugu. Horretarako, prestakuntza-bono bat ezarri, prestakuntzarako eskaintza bat zabaldu eta enplegu-politika aktiboen eraginkortasuna zorrotz ebaluatuko da.

2.3. Unibertsitate bikainak

- 44.** Unibertsitateetarako finantzazio-esparru orokorra ezarriko dugu, behar adinakoa, egonkorra eta gardena, espezializazioa eta bikaintasuna sustatu, irakasle eta ikertzaileen emaitzak aintzatetsi eta ikasleak lan-munduan murgilaraztea sustatzen duena. Mezenasgo-, laguntza- eta lankidetzazko espazio zabalagoak irekiko ditugu gizarte-ekimenekin.



Bat egin aldaketarekin

- 45.** Unibertsitateak, irakasleak eta ikasleak nazioartekotu daitezten sustatuko dugu. Irakasleen hartu-emana, graduko eta gradu-ondoko irakaskuntza ingelesez egitea eta atzerriko unibertsitateetan baterako titulazioak izatea bultzatuko dugu.
- 46.** Unibertsitate-ikasketetan bikaintasuna eta aukera-berdintasuna sustatzen duen beka-sistema sustatuko dugu, gizartearen arraskatarako funtsezko faktorea baita. Unibertsitate-sistemaren koordinazioa hobetuko dugu, Espainiak osoan barruti bakar bat bailitzan funtziona dezan. Ikasleek goi-mailako hezkuntzako ikasketak European egiteko programak defendatuko ditugu.

2.4. Muga berriak zientzia eta ezagutzarako

- 47.** *Baliabide zientifiko eta teknologikoen mapa nazional bat eskainiko diogu gizarteari, eta ikerketako eragile publiko bakoitzaren gaitasun eta emaitzak gehiago zabalduko ditugu.*
- 48.** Pizgarri fiskalen egitura eguneratuko dugu enpresetako I+Gean inbertsioa sustatzeko; lehentasuna emango zaie sortu berri diren enpresei, ETE berritzaileei eta sektore estrategikoenei (osasuna, energia eta garraioa).



Ongizatearekiko konpromisoak

Gizartearen unea da. Jendearengan konfiantza dugu. Kritik ateratzea guztion erantzukizuna da, izan ere, guztiok egokitu eta dugun onena eman behar baitugu etorkizun hobea eraikitzeko. Gizarte gehiago eta gobernu hobea behar da.

Gizarte-politikan dugun helburu nagusia Ongizatearen Estatu bermatzea da. Azken urteetan, hainbat zalantza sortu dira osasun-sistemaren iraunkortasunaren inguruan, baita pentsioen bideragarritasunaren eta gure Ongizate Estatuaren funtsezko ildoak mantentzeko aukeraren artean ere. Alderdi Popularrak Ongizate Estatu osatzen duten zerbitzu publikoen izaera unibertsala eta kalitatezkoa mantentzea hitzematen dugu. Eraginkorragoa den eta iraunkortasuna bermatzen duen aldaketa-programa serio bat bultzatuko dugu.

Espaniar guztientzat kalitatezko osasun publiko eraginkorra eta iraunkorra izateko konpromisoa hartzen dugu, baldintza-berdintasunean. Pazientea izango da sistemaren ardatza. Eta osasun-arloko profesionalen erantzukizuna, berriz, eraginkortasunaren palanka izango da.

Guztientzat aukerak dauden gizarte integratzaile bat egiteko konpromisoa berresten dugu. Gizarte-egoera ahulena bizi dutenen arretari dagokionez, gizarte-ekimenaren lana sustatzen dugu, gizarte-bazterketa eta pobreziaen aurkako borrokarako zeharkako politikak eginez, eta malgutasuna, gizartearen parte-hartzea, koordinazioa eta gardentasuna irabaziz.

Familiek parte har dezaten nahi dugu gizarteari dinamismoa itzultzeko, hezkuntza hobetzeko eta gure seme-alabei baloreak transmititzeko. Eta familiek, gizarte-kohesiorako lan ordainezinak egin ahal izateko, administrazio publikoen laguntza irmoa beharko dute.

Gizon eta emakumeek proiektu pertsonalak eta familiako erantzukizunak aske antolatzeko aukera dute oinarri gure berdintasun-politikek.

Adindunek familian, eta baita gizartean ere, duten funtzio berria babestuko dugu, edonolako lan-diskriminazioa desagerraraziz, gizarte-zerbitzuek lagun dezaketen eremuak zabalduz eta pentsio-sistema malguagoa sustatuz. Pentsioen erosteko ahalmena mantentzearekin konpromisoa du Alderdi Popularrak.

Zeharkako estrategia bat diseinatuko dugu pertsona desgaituen autonomia pertsonala eraginkorragoa izateko.



3.1. Familia: Ongizatearen lehen sozietatea

- 49.** Familiei laguntza emateko osoko plan bat onartuko dugu. Funtsean, lan- eta familia-bizitza bateratzea erraztuko duten neurriak bultzatzea bideratuko da.
- 50.** Interneteko delituen kontrako borroka indartuko du eta arreta berezia jarriko dugu haurrak babestean. Haurrek sexu- eta biolentzia-eduki gutxiago ikus dezaten egingo dugu. Adingabeak ikus-entzunezko komunikabideetan babestuta egotea bermatuko dugu-eta. Horretarako, haurrak babesteko ordutegiak zehatz-mehatz betearaziko ditugu. Haurrei zuzendutako *marketin* arduragabearekin amaitzeko borrokatuko dugu.
- 51.** Amatasunak babestua eta lagunduta egon behar du. Amatasuna babesteko lege bat bultzatuko dugu eta haurdun dauden emakumeak babesteko neurriak izango ditu, batez ere, egoera zailetan daudenentzako. Amatasuna babesteko sareak bultzatuko ditugu. Abortuari buruzko gaur egungo araudiaren eredia aldatuko dugu bizitzeko eskubidea nahiz adingabeak babesteko.

3.2. Osasunari lehentasuna eman

- 52.** Kalitatezko zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatzen duten neurri guztiak hartuko ditugu. Osasun-sistema nazionalan, zerbitzu-zorro bat zehaztuko dugu, oinarritzkoak eta arrunta izango dena. Gaixotasunak tratatzerakoan benetako hobekuntza dakarten berrikuntza guztiak txertatuko ditugu. Irisgarritasuna hobetzeko beharrezko berrikuntza-lan guztiak egingo ditugu, burokrasia ezabatuko dugu eta eraginkortasuna irabaziko dugu kudeaketan.
- 53.** Osasun-txartel eta historia kliniko elektronikoak eta errezeta elektroniko bakar, partekatu eta guztiek erabili dezaketena bultzatuko dugu, gaixoaren informazio guztia Espainiako edozein osasun-etxetik eskuragarri egon dadin. Gaixoei, norbanakoari egokitutako eta pribatutasun-berme guztiak dituen bere patologien informazioa eta tratamendua jasotzeko plataforma informatikoak bultzatuko ditugu. Txertoen egutegi bakarra bultzatuko dugu, autonomia-erkidego guztietarako bera izango dena.

3.3. Gure adinekoen ongizatea

- 54.** Adinekoen estatutu bat ezarriko dugu eta, bertan, besteak beste printzipio hauek zehaztuko dira: ez baztertzea, norberaren autonomia bultzatzea, adinekoek gure gizartean parte-hartze aktiboa izatea eta osasun- eta gizarte-zerbitzuak libre aukeratu ahal izatea.
- 55.** Alderdi Popularra pentsioen erosmen-ahalmena mantentzearen aldekoa da. Pentsioa zatika kobratu ahal izatea eta modu eraginkorrean lanean jarraitzea bultzatuko dugu. Lan-bizitzan egindako kotizazioekin proportzionalagoa den pentsioa bultzatuko dugu. Pentsioak gardenagoak izan daitezela lan egingo du. Horretarako, urtero txosten pertsonalizatu bat bidaliko da etorkizuneko pentsioei buruzko informazioa adieraziz.



- 56.** Ohitura txarrak eta adinekoek familietan, merkataritzan, finantzetan eta laguntza-zerbitzuetan duten konfiantzan baliatuz gertatzen diren abusu-egoerak jazarriko ditugu.

3.4. Benetako berdintasuna

- 57.** Gizon-emakumeen lan-bizitza, bizitza pertsonala eta familia-bizitza bateratzen lagunduko duen osoko plana onartuko dugu eta, bere xede nagusia bateratze hori mugatzen duten oztopoak ezabatzea izango da. Lanean haurtzaindegiak sortzen dituzten enpresentzako zerga-pizgarriak sartuko ditugu. Lanean eta eskoletan ordutegiak malgutzea bultzatuko dugu eta etxetik lan egitea ere bultzatuko dugu.
- 58.** Langileek beren arazoei aurre egiteko duten denbora erabiltzea malgutuko dugu, nahi duten bezala bana dezaketen ordu-poltsa bat sortuta.
- 59.** Genero-indarkeriaren kontra modu eraginkorrean borrokatuko dugu. Horretarako, dugun araudia hobetuko dugu, oraingo egoerara egokituta eta babes-mekanismoak indartuta. Adingabeak legearen babespean jarriko ditugu.

3.5. Autonomia pertsonal gehiago

- 60.** Ezintasunak dituzten pertsonen ondasun babestuen fiskalitatea hobetuko dugu.
- 61.** Ezintasunak dituzten pertsonak etapa guztietako hezkuntza-sisteman sartzea bermatuko dugu. Haur-hezkuntzara sartzeko mekanismoak indartuko ditugu.

3.6. Integrazioa: eskubide berak, betebeharrak

- 62.** Legezko immigrazio ordenatuaren eta lanari lotutakoaren alde egingo du. Horrela, erregularizazio masiboekin amaituko dugu. Mafien eta pertsonen trafikoaren kontra borrokatuko dugu. Giza eskubideak eta pertsonen duintasuna beti errespetatu daitezkeen bermatuko dugu, edozein izanik beren egoera legala edo administratiboa.
- 63.** Beste herrialde batzuetako haurrak eta gazteak hezkuntza-sisteman berehala integratzea sustatuko dugu, errefortzu-programen eta lotura-gelak bidez. Gaztelania, eta gainerako hizkuntza koofizialak, ikasteko programak ezartzea bultzatuko dugu, integratzeko oinarritzko tresna dela irizten baitugu.

3.7. Joko garbia

- 64.** Oinarriko kirola bultzatuko dugu, kirol-elkarteen jarduerari egokitutako marko juridiko bat definituz.



- 65.** Kirolak lana sortzen, ekonomia hazten eta erdeinatutako guneak biziberritzen nolako ekarpena egiten duen erakutsiko diogu gizarteari. Kirolaren enpresa-laguntza bultzatuko dugu.

3.8. Kultura: sormena, askatasuna eta herentzia

- 66.** Mezenasgoa bultzatuko dugu, partikularrak nahiz enpresak kultura finantzatzen eta promozionatzen parte har dezaten eta, beraz, pixkanaka-pixkanaka, diru-laguntzetan oinarritutako gaur egungo eredia ordezkatu dezagun.
- 67.** Arreta berezia jarriko dugu Internet kultura-industriaren munduan egiten ari den aldatetetan eta globalizazioaren esparru berri horretan egiten diren trantsizioen alde egingo dugu.

3.9. Ingurumenarekin adeitsuak

- 68.** Gure baso-ondarea handitzeko konpromisoa hartuko dugu, CO2 are gehiago finkatzeko eta klima-aldaketaren kontrako borrokan laguntzeko baliabidea baita. Baso-sektorea garatzea sustatuko dugu. Horretarako, ekintza prebentiboak gauzatuko ditugu eta baso-suteak ekiditeko mendiak garbituko ditugu. Biomasa aprobetxatzearen alde egingo dugu eta, autonomia-erkidegoekin eta baso-jabeekin lankidetzan, mendiak kudeatzea eta modu jasangarrian ustiatzea bultzatuko dugu.
- 69.** Herritarrek ingurumena errespetatzeko, natura babesteko, biodibertsitatea mantentzeko eta animaliak zaintzeko duten erantzukizuna indartuko dugu.



Administrazioa, aldaketaren motorra

Mundu globalizatuan, gure antolaketa juridikoaren kalitatea eta gure erakundeen eraginkortasuna lehiakortasun-faktore indartsua dira eta gure ekonomia-hazkundearen bizkarrezurraren zati izan behar dute.

Baliabide publikoen administrazioan luxurik eza, gardentasuna eta ardura izan behar dira erreforma guztien printzipio gidariak.

Orain, administrazioek aurre egin behar dioten eraldaketak hiru helburu argi izan behar ditu: zerbitzu publikoen hornidura eraginkorragoa izatea, horiek ematerakoan sektore pribatuaren modu eraginkorragoan parte-hartzea eta erabateko gardentasunean oinarritutako kontuak emateak hobetzea.

Funtzio publiko inpartzial eta kalitatezkoa ezinbesteko elementua da Estatu modernoak ondo funtziona dezan. Beharrezkoa da giza baliabideen politika berri bat, modernoa, profesionaltasunean eta meritu eta gaitasun printzipioetan oinarritutakoa.

Gure aurreko-sistema, bere exekuzioa eta gastuaren kontrola erreformatzea saihestezina da eta erabilitako baliabideekin lortutako emaitzak neurtzeko sistema eraginkorrekin lagunduta joan behar dute.

Benetako administrazio elektronikoa bat txertatzeak aukera berri aldra eskaintzen jarraitzen du, hala herritarrei zerbitzu hobe bat eskaintzeko aukeran, nola gastu publikoan murrizketa esanguratsuak eskuratzeko aukeran.

Estatu moderno batek ziurtasuna, segurtasun juridikoa eta benetako konfiantza bermatu behar ditu. Arautzeko jardueran, printzipio batzuk oso-osorik onartu behar dira: aldi baterako helburu eta aukerak aurreikusgarriak izatea, eskumenak ondo definituta egotea, iritziaren arabera banaketak, erabakitze prozesuak gardenak izatea, agintarien eta interesatuen arteko arautze-elkarrizketak gardenak izatea, malgutasuna, azkartasuna, ahalik eta esku-hartze txikiena egitea eta merkatuaren mekanismoei erabateko errespetua izatea. Arau garbi, zehatz, egonkor eta aplikatzen errazak behar ditugu, edonondik datorrela ere.

Erreforma guztiak Espainian dauden administrazio-multzo guztietan aplikatu behar dira. Deszentralizazioa erabaki politikoak hartzeko guneak herritarrengana hurbiltzeko tresna indartsua da, baina eraginkorra izateko ezinbestekoa da ondo antolatuta izatea. Deszentralizazio politikoak eta administratiboak dituen abantailak aprobetxatu ahal izateko, orain arte ez ikusiarena egin zaien problema ugari zorroztasunez ekitea eskatzen du.



4.1. Gardentasuna

- 70.** Ahal bezain laster, gardentasunerako, informaziora sartzeko eta ondo gobernatzeko lege bat onartuko dugu, Dokumentu publikoetara sartzeari buruzko Europako hitzarmenean iradokitako printzipioei jarraiki. Legeak ikuspegi oso batetik helduko dio gardentasunari, herritarren eskubide dena eta administrazio publiko guztien jardueraren oinarritzko printzipioa dena. Horretarako, datu pertsonalak babesteko eskubidea neurtua bermatuko da, baina beti zainduko da interes orokorra.
- 71.** Tokian tokiko hautetsien ordainsariak homogeneousatuko dira. Horretarako, udalerrien dimentsioa, ingurunearen egoera sozioekonomikoak eta kudeatutako ekonomia-baliabideak hartuko dira kontuan.

4.2. Luxurik eza, ebaluazioa eta kontrola

- 72.** Administrazio-egituren eta kostuen arrazionalizazioari helduko diogu. Goi-karguen, aldi baterako langileen eta gastu arrunten kopurua murriztuko dugu. Auto ofizialak eraginkorrago erabiliko ditugu.
- 73.** Administrazio guztien aurrekontuetan oinarritzko zerbitzu publikoei eta publiko ez direnei dagozkien gastuak bereiztea eskatuko dugu. Ondorioz, herritarrek zehaztasun osoz ezagutuko dute zein diren funtsezko funtzioetara bideratutako baliabideak.

4.3. Sektore publiko berri bat

- 74.** Espainiar guztien berdintasuna bermatzeko funtsezko zerbitzu publikoen oinarritzko katalogo nazional bat bultzatuko dugu. Emandako zerbitzu publikoak estandar onenak dituela herritarrei bermatze aldera, kanpoko kalitate-egiaztagiriak eskuratzea bultzatuko dugu.
- 75.** Sektore publikoko erakundeak eta taldeak murriztuko ditugu, kudeaketa gardenago eta eraginkorragoa ziurtatzeko. Erakundeek arrazionalizazio ekonomikoari edo administratiboari erantzuten ez badiote, gardentasuna edo berme juridikoak murrizten badituzte edo administrazioak orain dituen bitartekoekin beren jarduera egin badezake, bertan behera utziko ditugu.

4.4. Interes orokorrarekin konprometitutako erkidegoak

- 76.** Administrazio bakoitzaren eskumen-esparrua zehatzago mugatuko dugu, behar ez diren gainezartzeak, burokrazia-egiturak ugaritzea eta administrazioan lan egiten duten langileak gehiegi ugaritzea saihesteko.



Bat egin aldaketarekin

- 77.** Ebaluazio-adierazleak garatu eta zerbitzu publikoa ematen duten administrazioen eraginkortasuna jendaurrean alderatzeko balio duen informazioa trukatu dugu.

4.5. XXI. mendeko udaletxeak

- 78.** Oinarrizko gobernuaren eta tokiko administrazioaren lege berri bat onartu dugu. Tokiko erakundeen autonomia erabat errespetuz, administrazio horien eskumenak zehaztasun handiagorekin esleitzeko eta horiek kudeatzeko tresna egokiagoz hornitzeko. Tokiko finantzaketa-eredu berriarekin, berriz, izapidetze bateratua bultzatu dugu.
- 79.** Duten antolatzeko eta finantzatzeko gaitasuna kontuan hartuta, udalerrak borondatez taldekatzea indartu dugu, zerbitzu onenak eskaintzeko xedez.



Ereduzko demokrazia

Arau juridikoetara doitutako botere publikoen jardueran eta botere publikoak ematen zaizkion erakundeetan oinarritzen da demokrazia-sistema. Bizitza demokratikoaren kemenaren eta ordezkarien eta ordezkatuaren arteko konpromisoaren indarraren eta sinesgarritasunaren arabera da erakundeak egoki funtzionatzea.

Elkarrizketa- eta erreforma-ahalegin handia behar da gizarte demokratiko aurreratuak egindako eskaerei erabaki iraunkorrak eskaintzeko. Geroz eta anitzagoa den gizarte batean inor ez da baztertu behar edo inork ez du baztertua sentitu behar, guztiok eskubide eta eginbehar berak ditugu eta errespetu osoa zor zaie Konstituzioari eta legeei.

Alderdi Popularrak birsortze-helburu bat zabaltzen du bere programako arlo guztietara eta bere gobernu-ekintzari ere erantzungo dio.

Politika konpromiso gisa ulertzen dugu. Alderdi Popularrak konpromiso hori Espainiako etorkizunean islatu nahi du eta, beraz, gizarteak eta ekonomiak aurrera egiteko proiektu partekatu bat proposatzen du.

Erakunde demokratikoak indartu behar ditugu konfiantzazko ehuna berrezartzeko. Halakorik gabe, inongo gizartek ezingo baitie aurre egin gaur egun alait arinen gaititu beharreko probei. Espainiarrok proba horiek gaititu ditzakegu eta gaititu behar ditugu.

Erantzukizun publikoak hartzen dituztenen jarduerak adibidea eman eta gardenak izan behar dute dimentsio bikoitz batean, hala pertsonalean nola instituzionalean. Alderdi Popularrak konpromisoa hartzen du gardentasuna, luxurik eza eta zorroztasuna bultzatzeko, baita ustelkeriaren kontra borrokatzeko ere, bai zuzendaritza politikoari dagokionean, bai administrazio publikoen jarduerari dagokionean ere.

Legegintzako bultzada arbitrarioaren menpe dagoen antolamendu juridiko kontraesankor eta gehiegizkoa, enbarazu gaitiezina da gizartearen sinesgarritasunerako. Iragarri daitekeen esparru juridikoa behar dugu, arau eraginkorrak dituenak, kualifikazio- eta gardentasun-bermea duten erakunde eta organoek aplikatutakoak. Egonkortasunezko eta konfiantzazko inguruneak ekimen hobetoak eta kaudimen handiagoko proiektuak izatea ekartzen baitu.

Konstituzioaren esanahiari balioa handitu behar diogu, hitzarmen politiko handi baten eta espainiarren arteko adiskidetzaren ondorengotzat baita. Akordio honetan, eta Konstituzioak definitzen eta bermatzen duen esparruaren barruan, espainiarrok gure arrakasta onenak erdietsi ditugu.



5.1. Politika eta erakundeak birsortzea

- 80.** Benetako elkarriketan jarduteko jokaerarekin, Konstituzioaren balioen inguruan Espainiar guztien arteko elkar-ulertzearen eta adiskidetasunaren alde egiten duten ekintza eta akordio guztiak sustatuko ditugu.
- 81.** Parlamentua biziberrituko dugu, eztabaidarako prozedurak eta diputatuen eta senatarien jarduera azkartuta. Oposizioari ekimenak sustatzeko eskubidea aitortuko diogu, azken urte hauetan egin den betoaren erabilera arbitrarioa eta gehiegizkoa errepika ez dadin. Errege-dekretuaren konstituzio-zentzua berreskuratuko dugu. Gobernuakideek helburuen plan bat aurkeztuko dute agintaldiaren hasieran, eta urtero eguneratu egingo dute.

5.2. Justizia arin eta iragarri daitekeena

- 82.** Bulego judiziala aldaraziko dugu, eraginkorra, irisgarria eta gardena izan dadin justiziarengana zuzentzen denarentzako eta organo jurisdikzional guztietan kudeaketa-unitatea bat ziurtatzen duena izan dadin. Sistema informatiko bakarra eratzten duen bulegoa sustatuko dugu. Halaber, datu judizialak eta justizia-administrazioarekin lotutako erregistro publikoetan dauden datuak berehala jakin ahal izango dira sarean.
- 83.** Zigor-kodeko zigor-sistema erreformatuko dugu. Berrikusi daitekeen espetxe-zigor etengabea, zigor bete ostean segurtasun-neurriak aplikatzeko aukera, ezarritako zigor bakoitzari ezar dakizkioken espetxe-onuren zenbaketa eta hainbat aldiz berrerortzeari buruzko araudi berria gehituko ditugu.
- 84.** Auzitegi Gorenaren kasazio-funtzioa indartuko dugu.

5.3. Auzitegi Konstituzionalaren izen ona

- 85.** Auzitegi Konstituzionaleko magistratuak hautatzeko prozedura aldatuko dugu, behar ez diren atzerapenak saihesteko.
- 86.** Autonomia-estatutuak erreformatzeko izapideten konstituzionaltasun ezaren aurreko errekurtsoa berrezarriko dugu. Jurisdikzio arruntari esleituko diogu funtsezko eskubideak bermatzeko babesa eta Auzitegi Konstituzionala konstituzioari buruzko egoeretan legerari jarraiki bere eskumena gauzatzeko erreserbatuko da.

5.4. Espainia seguruagoa

- 87.** Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan izaten diren lapurreten kontra borrokatzeko landa-segurtasunerako plan bat egingo dugu. Horrela, zaintza eta kontrolak areagotu egingo dira, delinkuentzia-mapak egingo dira, ebasketengatiko zigorrak gogortu egingo dira eta Guardia Zibilaren hedatzea bultzatuko da.



Bat egin aldaketarekin

- 88.** Gizalege-ezagatik egindako arau-hausteetan, arau-hausleek leku publikoan egindako kalteak konpontzea ordaindu beharko dute. Adingabekoen kasuan, gurasoen eta tutore legalen erantzukizuna eskatzea indartuko dugu.

5.5. Terrorismoaren porrota

- 89.** Ez dugu terroristekin negoziatuko, ez indarkeriaren presioagatik, ezta armak uztea iragartzeagatik ere. Horixe izango da Estatu-segurtasunerako politikaren oinarritzko printzipioa.
- 90.** Biktimen aitortza eta memoria bultzatuko ditugu eta, zentzu horretan, gizarte zibilak abiatutako ekimenak babestuko ditu.



Europarako politika eta atzerriko proiektzioa

Espainiak bere gizarte modernoaren isla fidela den atzerri-politika bat behar du. Trantsizioan sortutako adostasun demokratikoko balioek miresmena sortzen duen nazio bihurtu gaitu eta, berriro ere, atzerri-ekintza iradoki behar dute.

Behar-beharrezkoa da solaskide fidagarri, aurreikusteko moduko eta errespetatu gisa izandako protagonismoa berreskuratzeko atzerri-ekintza berri bat. Ekingo diegun ekonomiaren eta erakundeen erreformek nazioarteko errespetua irabazten eta atzerrian Espainia mendebaldeko demokrazia aurreratu gisa proiektatzen lagunduko dute, askatasunarekin, demokraziarekin eta giza eskubideen defentsarekin konprometituta dagoena.

Europar Batasuna Alderdi Popularraren bokazioa da. Europar Batasunean erreferente izango den politika bat proposatzen dugu, bertako erabakietan eragingo duena eta konponbidea eta aitzindaritza ekarriko dituen. Halaber, euro egonkorrago baten aldeko konpromisoa hartzen dugu, ekonomia eta erakundea hazteko eta egonkortzeko oinarria baita.

Iberoamerikako Elkarteko kide izateak erantzukizunak eskatzen dizkigu, baina era berean, elkarren arteko ekonomia- eta politika-aukerak eskaintzen dizkigu kide guztioi. Gure bokazio amerikarra aktibo bat da Europan dugun kokapenerako eta Estatu Batuekin ditugun harremanetarako.

Afrika Iparraldeko iraultzek aukerak eta zalantzak ekarri dituzte. Espainiak konpromiso aktiboa izango du Mediterraneoan demokrazia egonkortzen laguntzeko, Europako bizilagunen politika berrituaren lerroan.

Gizarteari eta enpresei aukerei heltzen eta Asia eta Afrika garatzen laguntzen dien gobernu bat nahi dugu. Estatu Batuak bazkide eta aliatu bat da. Atlantismoa balore eta oparotasun partekatuen funtsezko komunitatea da, ezinbestekoa Europak munduan paper garrantzitsua izan dezan.

Nazioarteko erakundeen, G-20aren, garapenerako lankidetzaren eta gosearen eta pobrezia- kontrako borrokaren agendetan erantzun sinesgarriak egingo dituen kanpo-proiektzio bat behar dugu.

Kanpo-zerbitzu arrazionala, profesionala eta eraginkorra nahi dugu, espainiarroi eta gure enpresei nazioarteko aukerei heltzen lagunduko diena.

Bakea, giza eskubideak eta geure segurtasuna babesteko gure sozioekin eta aliatuekin batera garatzen ditugun nazioarteko misioekiko gure konpromisoa eta leialtasuna mantenduko dugu.



6.1. Erreferenteak Europar Batasunean

- 91.** Europako ekonomiaren gidaritzan egonkortasun- eta hazkunde-hitzarmena gordetzea gertu-gertutik zainduko dugu. Euroarekin konprometituta gaude, Europar Batasunaren progresu-proiektuaren funtsezkoaren zati baita.
- 92.** Nekazaritza-politika bateratu sendoa defendatuko dugu, gure nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak bitarteko nahikoak izan ditzan. Gainera, Europako elikagai-segurtasuna finkatu behar dugu. Arrantza-politika bateratuaren erreforman arreta izatea ere lehentasunezkoa izango da.

6.2. Kontuan hartzen den Espainia bat

- 93.** Iberoamerikako nazioen elkarteko bazkideekin ditugun harreman politikoak indartuko ditugu. Iberoamerikako goi-bileretan nazioartean, kulturean, hezkuntzan eta zientzian ditugun erronka handiekiko ditugun posizio komunak garatzearen alde egingo dugu. Europar Batasunaren eta Iberoamerikako herrialdean arteko politika, ekonomia eta merkataritza alorreko hitzarmenen negoziazioa bultzatuko dugu.
- 94.** Afrika iparraldea demokratizatzen eta garatzen lagunduko dugu. Horretarako, geure Trantsizioaren esperientzia bera eskainiko dugu. Europar Batasuneko geure bazkideekin Ekialde Hurbileko bake-prozesua bultzatzen lagunduko dugu. Saharaz azpiko Afrikan, aktiboki hartuko dugu parte kontinentean hain beharrezkoa den modernizazio eta garapen ekonomikoan, politikoan, kulturean, osasun arlokoan eta zientifikoan.

6.3. Kanpoan dauden espainiarrak

- 95.** Espainiako kanpo-administrazioa modernizatuko dugu, espainiarrenganako arreta eraginkorragoa izan dadin.
- 96.** Autonomia-erkidegoekin lankidetzan, Espainiara itzuli nahi duten espainiarren izapideak arinduko ditugu. informazioa emango diegu, laguntzak eskuratu ahal izango dituzte eta eman beharreko administrazio-prozedurak murriztu egingo dira.

6.4. Garapenerako laguntza modernoa

- 97.** Garapenerako laguntzaren kudeaketa eta ebaluazioa hobetzea bultzatuko dugu. Kostu-eraginkortasunaren eta inpaktuaren analisia ezarriko dugu. Administrazio guztien ekintza koordinatuko dugu, estrategia-lehentasunen eta Europar Batasunaren irizpideen arabera.
- 98.** Garapenerako laguntzan, aliantza publiko eta pribatuak bultzatuko ditugu, baita erantzukizun sozial korporatiboa ere.



Bat egin aldaketarekin

6.5. Guztion segurtasuna eta defentsa

- 99.** Mugikortasun geografikoa, etxebizitza, hezkuntza, osasungintza, hizkuntza, bateratzea eta kuartelen eta bertako egoiliarren segurtasuna errazteko familia-laguntzaren plan bat abiaraziko dugu.
- 100.** Karrera militarren legea berrikusiko dugu, segurtasun juridikoa, profesionaltasuna, heziketa egokia eta gure Indar Armaturen etorkizuna mantentze aldera.